

1.5.1. Indarrean dagoen araudia betetzea eta ikastetxeko langile guztiek betetzen dutela bermatzea.

1.5.2. Ikastetxearen helburuen, lorpenen eta bideratzeko dauden erronken hedapen sistematikoa. Jardunbide egokiak komunikatzea eta partekatzea.

1. LERRO ESTRATEGIKOEN ETA IKASTETXEAREN URTEKO PLANEAN PROPOSATUTAKO HELBURUEN ARTEKO KOHERENTZIARI HELTZEA (DOKUMENTUEN ANALISIA ETA ELKARRIZKETAK)

- Lerro estrategikoak eta ikastetxe-proiektuak (IHP, ICP, AJA...) eta IUPn zehaztuta dagoena bat etortzea.
- IUPn jasotako helburuak eta esku hartzeko lerroak egiaztatzea eta ikasturtean aplikatzea: IUP, kide anitzeko organoen aktak, beste koordinazio-organo batzuen aktak, etab.
- Memoriaren egitura eta edukia egiaztatzea eta hurrengo ikasturteko IUPreko koherentzia-mailari erreparatzea.
- Elkarrizketak, zuzendariak IUPn eta ikastetxeko beste dokumentu batzuetan (IHP, ICP...) adierazitako helburuak zenbateraino betetzen eta betearazten dituen egiaztatzeko.

2. LORTUTAKO XEDE ETA HELBURUAK HEDATZEA (DOKUMENTUEN ANALISIA)

- Dokumentuen analisía, memoriaren edo beste dokumentu batzuen edukiek lorpenen hedapenari eta komunikazioari ekiten diotela egiaztatzeko.

3. GOBERNU ORGANOEN FUNTZIONAMENDUAN ARAUDIA BETETZEA (DOKUMENTUEN ANALISIA)

- Betekizun formalak egiaztatzea (deialdia, gai-zerrenda, akta, akordioen adierazpenak...)
- Organo horiek proiektu bakoitzerako adostutako helburu eta lerro estrategikoen garapena jasotzea.

4. JARDUNBIDE EGOKIAK BETETZEA (DOKUMENTUEN ANALISIA ETA ZUZENDARITZAREKIN ELKARRIZKETA)

- Jardunbide egokiak partekatzen eta ikasten ditu:
 - ✓ Ikastetxe edo erakundeak bisitatzen ditu.
 - ✓ Prestakuntza-jardueretan parte hartzen du.
 - ✓ Gai horri buruzko egungo esperientziak ikertzen ditu eta horiei buruzko informazioa jasotzen du.
 - ✓ Artikuluak idazten ditu, ponentziak egiten ditu, eta abar.